

20. Kultur Astea ate joka: Urriaren 25, 26, 27, 28 eta 29an eta azaroaren 2, 3, 4 eta 5ean egingo da 2017ko Kultur Astea. Ohitura dugun legez, hitzaldi, tailer, ikus-entzunezko, musika, zine eta antzerki-emanaldiak izango ditugu tartean, ume nahiz helduentzat, eta azken egunean Azoka. Herriko eta herritarren produktuez hornitutako postu ugari tartean, baita argazki-, arrosesne-, ahari-, ardi-, bildots- eta gazta-lehiaketak ere.



21. J. A. Muñagorri eskolaren 25. urteurrena: Datorren azaroaren 12an 25 urte beteko ditu herriko eskolak eta igandez izango den urteurrenaren ospakizuna antolatzeke batzorde bat osatu da eskolako irakasle taldearen, Beasti Guraso Elkartearen eta udal gobernuaren artean. Elkarlanean osatu dugu egitaraua.

Goizean zehar, Ate Irekiak jardunaldia egingo da eskolan eta bertako kide eta langile direnen eskutik era askotako tailer, erakusketa eta jolasez gozatzeko aukera izango dugu. Eguerdia aldera, berriz, Irati Saizar Artolak eskolaren 25. urteurrenaren inguruan landu duen ikus-entzunezkoaren emanaldia izango da udaletxean. Ondoren, herri-bazkaria egingo dugu aparkaleku azpiko lokalean edota frontoian; eta, arratsalde parte osatzeko, ume eta gurasoen arteko jolasak, txokolatada eta erromeria izango ditugu, eguna merezi bezala borobiltzeko.



Herritarrek

INFORMATZEN

Udalgintza informazioa 2015-2019

2017ko urria

9. alea



www.berastegi.eus

HIRIGINTZA

1. Plaza berritzeko proiektua: Plazako obra bukatua dago dagoeneko. Uretako bihurtzea eta Grazineako bidea eta aparkaleku berria asfaltatzeko lanak ere egin ahal izan dira, plazarako ekarri behar zen brea aprobetxatuta. Aurreikusitako lanak hil honetan bertan amaitzea espero dugu.



Plaza martxan da Salontzoak ezkerre, baina inaugurazio-ekitaldirik egin gabe gaude oraindik. Hala, urriaren 29an, igande goiz-eguerdiz, egingo dugu plaza inauguratzeko ekitaldi ofiziala, Kultur Asteko programazioaren barruan. Herri-agintarien ohiko hitz-hartzearen ondoren, eguraldiak laguntzen badu beti ere, bote luzeko eta erreboteko pilota-partidak izango ditugu plazan, Oiartzungo Txost eta Amasa-Villabonako Behar Zana taldeetako jokalariei aurkezle eta epaileen eskutik.



Esan behar da, bestalde, herritarrek hala eskatuta eta guk ere egoki iritzita, plazako lurreko argiak gauz itzaltzen hasiko garela aurki; 0,00etatik 6,00etara, hain zuzen.

2. Frontoia berritzeko proiektua: Aurreko herri batzarrean esan genizuen bezala, udal gobernuak frontoia berritzeko diseinatu eta aurkeztutako proiektuak jasoa du Gipuzkoako Foru Aldundiaren kirol azpiegiturak berritzeko laguntza-lerroaren onespina. Herriko arkitektoak diseinatutako proiektuak 240.000 euro inguruko aurrekontua du eta %50eko diru-laguntza onartu digute. 2018an, beraz, 120.000 euro jasoko ditugu Aldunditik frontoia berritzeko.

Azaroaren 30era arteko epea daukagu behar beste zehaztapen egiteko proiektuari, behin betikoz Aldundiari aurkeztu aurretik. Hori dela eta, udal gobernuak 3 saio antolatu ditu urrirako herritarrei begira: hilaren 11n proiektua zertan den eta zer aukera dauden azalduko digu herriko arkitektoak; hilaren 18an herritarrek proiektuari ekarpenak egiteko aukera izango dute; eta hilaren 20an proiektuaren bertsio definitiboaren aurkezpena egingo dugu. 3 saioak 19,00etan izango dira.

UDAL FUNTZIONAMENDUA

3. Udal-gobernuaren lanari buruzko galdetegia: 2015-2019 legealdiaren erdira iritsita, 2015eko udal-hauteskundeetara aurkeztu genuen herri-programa hartu eta finkatutako lan-ildo eta helburuei atzera begiratzea egoki ikusi dugu.



Orain arte izandako funtzionamenduaren eta egindako lanaren inguruan herritarrek zer iritzi duten jakitea gustatuko litzaiguke; eta, hemendik eta legealdia amaitu bitartean, herritarrek gure jardunari zer ekarpen egingo lizkioketen ere jakin nahiko genuke.

Herritarren begirada eta balorazioa ezinbestekoak dira guretzat. Hargatik eskatu nahi dizuegu etxez etxe banatuko dizuegun galdetegia patxadaz irakurri eta gogoz bete ondoren, udaletxeko sarrera nagusiaren ondoan dagoen postontzian uzteko, urriaren 31 baino lehen.



15. Udaletxeko erloju zaharra: Pieza guztiak banan-banan garbitu eta berriz ere montatua utzi du Miguel Larburu herritarrek bere borondatez, beste herritar batzuen laguntzarekin. Berriz ere martxan jarri eta nonbait ikusgai jartzea proposatu dio udal gobernuari eta guk udaletxearen sarreran, posta bulegoko itxarongelan jartzea pentsatu dugu.

KULTURA eta KIROLA

16. Euskararen Erabilera Plana: UEMAK edo Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak Berastegiko udal administrazioarentzat 2011-2015 legealdian diseinatutako Euskararen Erabilera Planak orain jasoa du Eusko Jaurlaritzaren onarpena, Espainiako gobernuaren Gipuzkoako ordezkari izan den Carlos Urquijok jarritako helegitea gainditu eta gero. Berandu iritsi da onarpena, baina ez dugu aparteko arazorik izango plan bera plenez onartu eta 2018-2022 urteen artean indarrean jartzeko.

17. 2017ko Salontzoen balantzea: Urteroko ekitaldiei berriak gehituta, giro onean eta herritarren parte hartze zabalarekin pasatu ditugu aurten ere. Festen inguruan balorazio ona egin du udal gobernuak. Guztira, 38.297,72 euro gastatu dira Salontzoak antolatzen, eta Elduako Ama Birjinetan, berriz, 1.783,07 euro.



18. Gazte eta helduei zuzendutako ikastaro eskaintza: Urriaren 2tik martxan dira udal gobernuak antolatutako gazte eta helduei begirako ikastaro gehienak. Hauexek dira aurten eskainiko diren ikastaroak: mantenimendu gimnasia, pilates, zumba fitness, zumba, yoga, euskal dantzak (DBHkoentzat), ingelesa (DBHtik aurrera), trikitixa (DBHtik aurrera), joskintza eta pala neskentzat. Txistu (DBHtik aurrera), Euskara eta Bertsolaritza ikastaroak ere eskaini eskaini dira, baina ez da printzipioz taldeak osatzerik lortu.



19. Meakako iturria eta labaderoa garbituta: Burdina Taldeak garbitu eta berreskuratu ditu dagoeneko, agindu bezala. Orain iturria berriz ere martxan jartzea falta da. Ur Kontsortzioaren ardura eta lana izango da hori.

Ez dago esan beharrik, txakur-kakak biltzea txakur-jabeen erantzukizuna da, ez beste inorena. Badira herrian ontziak udal gobernua jarriak (plazan, Sastitxarren eta kanposantu atarian) eta erabiltzeko dira. Mesedez, txakur-kakekin arduraz jokatzeko eskatu nahi dizuegu txakur-jabe zareten herritar guztioi.

Gauza bera eskatu nahi dizuegu txakurrak lotu gabe eramaten dituzuen herritarroiei. Herri barnean eta inguruan, ezin da onartu jendeak lotu gabe dabilzan txakurren beldurrez ibili beharra (oinez, korrika, bizikletan, umeekin etab.). Txakurrak lotuta eramateko eskaera egin nahi dizuegu.

12. Pixa eta gorotza ateratzeko araudia: Era berean hainbat herritar kexu dira baserritarrek pixa eta gorotza noiznahi eta nolannahi ateratzen dutelako eta herrian jasan ezinezko kiratsa zabaltzen dutelako.

Korapilatsua da gaia. Jakina da baserritarrek pixa eta gorotza atera beharra izaten dutela aldian-aldian, lekurik gabe geratzen direlako nahiz, larrerik izango bada, behar-beharrezkoa dutelako garaia iristean ongarrria zabaltzea. Eta jakina da, era berean, inork ez duela gustuko herrian eta etxe barruetan usain txarrik izatea.

Bada araudi orokor bat indarrean EAeko eremu osoan, baserritarrek zer, noiz eta nola bota arautzen duena. Gure inguruko baserritarrek araudi hori ezagutu eta errespetatu dezaten, pausoak emateko prest da udal gobernuak.

13. Gaizki aparkatutako ibilgailuek sortutako eragozpenak: Eskola eta Urepele Elkartearen atarian, Kale Nagusian eta Basurde Elkartearen parean, espaloi nahiz zebrabideen gainean... Sarri topatzen ditugu ibilgailuak gaizki aparkatuta, oinezkoen eremua hartu eta bereganatuta. Herritarrek horrek sortzen dituen eragozpen eta kalteen inguruko kontzientzia hartzea nahi genuke. Oinezkoen eremua errespetatu ezean, neurriak hartu beharko ditugu.



14. Liburu bikoiztuak liburutegian: Herritarrei etxean zituzten liburuak liburutegira ekartzeko gonbita luzatu zitzaientetik, pilatzen joan zaizkigu liburuak eta asko bikoiztuak dauzkagu. Beraz, erabilerarik ikusten ez zaien liburu bikoiztu horiek Etiopiako Wukro herriari laguntzeko lanean ari den eta udazkeneko Bigarren Eskuko Azoka antolatzen duen herritar taldearen esku uztea erabaki du udal gobernuak.

4. Ordenantza fiskalak: 2018 urteari begirako udal-zergak eta bestelako tasak arautuko dituzten ordenantzak zehazteko garaia ere iritsi zaigu. Azken urteotan erabilitako irizpide berari jarraituz, Kontsumorako Prezioen Indizearen (KPIren) urteko batez bestekoa hartuko dugu oinarri. Gure iturrien arabera, %1,8an da balore hori eta gure zergei, hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiak errekaudatu eta udalari Foru Fondoaren bidez iristen zaizkion zuzeneko zergei igoera horixe aplikatzea erabaki dugu. Hauexek dira zuzeneko 5 zergak: 1) Landa izaerako ondasun higiezinaren gainekoa, 2) Hiri izaerako ondasun higiezinaren gainekoa, 3) Trakzio mekanikoko ibilgailuen gainekoa, 4) Hiri izaerako lurren balioaren gehikuntzari dagokiona eta 5) Jarduera ekonomikoaren gainekoa. Eraikuntza- eta instalazio-lanei ezartzen diegun %4ko zeharkako zerga bere horretan mantentzea aurreikusitako dugu.

Bestalde, udal tasak, hau da, udalak eskainitako zerbitzuren bat erabiltzeagatik herritarrei egiten dizkien kobrantza gehien-gehienak berdin mantenduko ditugu: zabor eta hiri-hondakinak bildu eta kudeatzeagatik tasa, fotokopia- eta fax-zerbitzuarengatik, etxez etxeko zerbitzuarengatik, Ategiko etxebizitza babestuak erabiltzeagatik, etxebizitzaren lehen erabilera-baimenarengatik, postuak jartzeagatik, lur/ lurrazpi/ lurgain publikoaren erabiltzeagatik, udal jabetzako lurrak erabiltzeagatik, frontoiko eta futbol-zelaiko argiteria erabiltzeagatik, telekomunikazio operadoreei kobratzen zaizkien tasak etab.

Hilerriko tasaren inguruan bai, egin behar izan dugu egokitzapenik. Prest dira dagoeneko, nitxo handiez gain, beste 25 nitxo txiki kanposantu berrian. Bakoitzean 6 errauts-ontzi edo hezur-kaxa bat sartzeko aukera dago.



Nitxo handi nahiz txikiak erabiliko dituzten herritarrei tasa bera kobratzea erabaki dugu: 10 urterako erabileraren truke, 250 euroko tasa ordaindu beharko da nitxo bakoitzaren erabileragatik. 10 urte pasa ondoren, udalak beharrezko ikusiko balu, hustu egingo lituzke eta bestela beste 10 urterako erabilera-baimena berritu, tasa bigarren aldiz kobratuta.

Hemendik aurrera indarrean izango den tasa baten berri ere eman behar dizuegu. Kanposantu zaharreko nitxo, panteoi edo lurpeko hobiren bat betetzeko edo husteko herritarren batek herri-langilea eta haren lan-orduak eskatzen baditu, 60 euroko tasa kobratuko zaio. Udalak ez du printzipioz eskumenik kanposantu zaharrean, baina bidezko ikusi dugu tasa kobratzea.

INGURUMENA eta ENERGIA

5. Bilera eskaera URA uraren euskal agentziari:

Zuzendari berria du agentziak eta beharrezko ikusi dugu bilera eskatzea bi puntu nagusiren inguruan hitz egiteko: alde batetik, ur zikinak



bideratuko dituen kolektorearen proiektuaren inguruan; eta, bestetik, Zelaiko errekan esku hartzeko dauzkagun aukeren inguruan. Kolektoreari dagokionez, esan behar dugu Gipuzkoako Ur Kontsurtzioaren azken batzarrean Zelaiko errekarari lotuta gauden herriok Aldundiarekin eta Ur Kontsurtzioarekin batera bilera Ingurumen sailburuari eskaera egitea erabaki zela. Eta, Zelaiko errekarari dagokionez, izana da URA agentziako behatzaile bat erreka ikusten. Hurrena teknikari batekin etorriko da eta hark adieraziko digu zer egin genezakeen.

6. Artaleku industriagune izendatzeko saiakera: Aspaldikoa dugun asmoari berriz ere helduz, urriaren 2an bilera izan zuten alkateak eta herriko arkitektoak Felix Asensio Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen zuzendariarekin, Artalekuko eremuak industriagune izendapena lortzeko zer aukera dauden aztertzeko. Gure eskaera kontuan hartuko duela adierazi zigun, teknikariaren laguntzarekin berriz ere hartu eta aztertuko dutela proposamena.



7. Energiari buruzko tailerrak: Gipuzkoako Foru Aldundiak *Argitu* izeneko programaren baitan antolatutako tailerra egingo dugu laster udaletxean. Tailerraren gaia "Eskuratu zure argindar-kontsumoaren datuak eta murriztu zure etxeko kontsumoa!" izango da. Azaroaren 20ko aste horretan egingo da.

NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA eta BASOGINTZA

8. Ipuliñoko larre komunalen proiektua: Aurreko herri-batzarrean iragarritako bilerak eginak ditu udal gobernua. Irailaren 14an larre komunal egitea pentsatua daukagun eremuko lur-jabeekin egin zen bilera, proiektua aurkeztu eta bertaratutako enpar-te-hartzea edo aldeko jarrera bilatzeko asmoz.



Bilerara deituak zeuden 24 lur jabeetatik 15 izan ziren bertaratutakoak eta oro har begi onez hartu zuten proiektua. Irailaren 21ean, berriz, larre komunaletaraazienda ekar lezaketen herriko ganaduzaleekin egin zen bilera, haiei ere proiektuaren berri emateko. Batzuen aldetik, behintzat, proiektuarekin hasteko indar nahikoa ikusi zen.

Hurrengo pausoa larre komunalen funtzionamendua zehaztuko duen elkarte sortu eta hitzarmen bat adostea izango da. Gipuzkoako Foru Aldundia, Berastegiko udala eta herriko lur-jabe eta ganaduzaleak izango dira bertako kide eta alde bakoitzaren betebeharrak eta eskubideak zehaztuta, larreak pixkana ireki edo itxi, garbitu eta abereak sartzen joateko moduan izango gara. Lehen eremua Gorosmendi, Beatari eta Iturzabal artekoa izatea hobetsi dugu.

9. Fitosanitarioak erabili ahal izateko ikastaroa nekazarientzat: Ikastaroa herrian eskaini ahal izateko gutxienez 20 lagunek eman behar dute izena. Azaroaren 6, 8, 9, 13, 14 eta 15ean egingo da, 25 orduko iraupena izango du eta gaztelaniaz eskainiko da. Interesik izanez gero, Fraisoro eskolan eman daiteke izena, 943 69 21 66 telefonora deituta edota fpefraisoro@hazi.eus helbidera idatzita.

GIZARTE ZERBITZUAK



10. Berdinbidean programa: 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan berdintasun politikak garatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak diseinatutako programaren baitan, 3 saio berri izango ditugu herrian: lehena, abenduaren

15ean, 18:30ean; bigarrena, eskolarekin elkarlanean LHko 4., 5. eta 6. mailako ikasleekin hizkuntza ez-sexista lantzeko; eta, hirugarrena, nerabe eta gurasoei begira, hezkidetzaren gaiaren ingurukoa. Azken hauen datak zehaztu gabe dauzkagu.

MOTZEAN

11. Txakurren inguruko kexak: Azken aldi asko ugaritu dira txakur-kaken eta herrian aske dabilen txakurren inguruan herritarrek jarritako kexak eta udal-gobernua horren berri emateko beharra ikusi du.

